



## **ANAIK GARA**

**Paulo Zamarripa**

Iturria: *Anayak gara*, Zamarripa abadea. Gaubeka, 1929.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZamarripaAnaiak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**ANAIK GARA  
IPUIÑA**

ZAMARRIPA ABADEAK  
Dotriñako umeentzat egia

Bermeon  
Gaubekaren irarkolan  
1929

JAUBEDUNA DA

Nihil obstat.  
JOSEPHUS MICHAEL DE BARANDIARAN  
Censor

Imprimi potest.  
Victoriae, 12 Octobria 1929.  
JACOBUS VERASTEGUI  
Pro-vicarius generalis



## ANAIK GARA IPUIÑA

Patxixun mutilko lagunak ez eukien iñoiz Patxixu bako olgetarik.

Eta ikusirik ez zala eldu domeka-arratsalde atan elizara Patxixu mutilko lagun ona, bere lagunxuen begi-begikoa, Dotriñara ta Errosario-ra Jai-domeka guztietan etorten zan dotriña-ikasle zintzoa, bere etxera joan zirean, ia zer jazoten ete iakon jakiten.

— Zer dakazue, mutiltxuak? —itandu eutsien Patxixun izekoak, euron deira urtenda.

— Ia Patxixuk zer daukon, gaur arratsaldean Dotriñara ez Errosario-ra etorri ez egiteko.

— Andik dala ta egon naz neu ba...

— Ez ete dago oian gero? —urten eban mutiltxuetariko zarrentxuenak.

— Oian ostera? Zer dala ta? Bazkaldu besteetan lez egin dau, ta neuk ez aitak ezteutsagu igarri ezer txarrik daukonik.

— Ba nik ondo igarri deusatz; urrean. Meza nausi ostean ezteusku olgetan lagundu gura izan ta... Orduan esan dot...

— Banoa etsean ete dagoan ikusten. Eta zuek itxaron or etse aurrean apur baten; etsean ezpadago, bere billa danok asteko... Jesus maita, zer ikusi bear ete dogu?

Ta auxe esanda, larri bere larri, Patxixun gelarantz egin eban.

\* \* \*

Ateko kisketari eskuko ikara andiaz eragin eutsan.

Ta atea zabalduaz batera, gorputza guztia ikara baten iminteko berba onek entzun zituzan, Patxixu oian ganean burua oitik kanpora atarata ikusten ebala:

— *Ezkundu gura dau baila bere.. Zumeza Olandiaga Jaxintok... erri onetan iaio ta... erri beronetan bizi danak...*

Ene Jainkoa! Neure aita da au!... Orra or egia izan da... Esan eustan aitaxuk berak... izeko Katalin ezkonduko dala laster, eta izeko Katalin ezkonduen dan egunean... berak beste izeko barri bat ekarriko daula... Ta izeko barria ekarteko izango dira onek deiunok... Ene! Zelangoa izango ete da izeko barri ori!... Ene! Ene Jainkoa!

— Ene Jainkoa! —esan eban Kataliñek be, bere lobatxu maitearen gorputza oitik bera jausten asten zala ikusirik.— Ekazu, Jauna, bear dodan indarra...

Ta tranku baten oian aurrera eldu, ta bere esku ikaratu bien ganean atrapau eban bere lobatxua... lurrari iya deusala...

Ta izeko onaren besoetan itzartu zan Patxixu, non egoan ezekiala.

— Ene! non nago ni? —esan eban oindiño ondo itzartu barik.

— Emen, ederra: zeure izekotxuren besoetan, —erantzun eutsan izekoak.

— Ta... zer? Zeu emen zagoz oindiño? Aurrekotsen? Aitanean? Ize-koa!...

Izekoak indar egin bear eban begietara etorkozan negar-angepuluak lotuteko. Ta indar egin ta guzti be, batzuk urten eutsien; ta bere lobatxuaren arpegian bere arpegiko negar-malkoak mosuka ta laztanka legortuten zituzala, esan eutsan:

— Ene Patxixu! Zer darabiltzu?... Zer daukazu, laztana? Zer jazoten iatzu, ederra?

— Ezebez, izekoa.

— Ezebez ta ainbeste zer?

— Ara, ba; amesetan egon naz ta...

— Ta, zek ekarri deusatz orrek amesok, ba? Esan egia.

— Eztakit zek ekarri deustazan. Baña meza nausian... zeure deiunak entzun dodaz... eta gero... aitaxunak... eta zu, ezkonduen zearan egunean, bazoaz seguru emetik, Aurrekotsetik... aitanetik... guretik... eta... izekoa...

— Baña ni joan arren, beste izeko bat iatortzu ta...

— Bai, baña, zer izango da nigaz zeu barik... eta... beste izeko bategaz?

— Izekoa baño geiago izango dozu aitak ekarriko deusatz izeko barria.

— Izekoa baño geiago?

— Bai; *ama*.

— *Ama! Ama...* bat izaten da! Ta *ama* izan neban andrea... il zan ta...

— Bai, lenengoa; baña ori beste ori bigarren ama izango dozu.

— Ta amak lez artuko nau?... Zeuk lez artuko banindu be,... enintzake asarre.

— Neuk baño obeto.

— Zuk baño obeto ezin nei iñok artu. Baña, zeuk diñozunetik, esan lei ondo artuko naula...

— Bai, laztana.

— Tira, ba!



— Tira, ba, Patxitxu! Itxi alde batera alperreko buruko miñok eta ames ganorabakook, eta joan poz-pez zeure laguntxuakaz olgetan, or etse aurrean daukazuz begira ta!

— Banoa, ba.

— Tira, ba! —barriro esanda, iñoizko mosurik gozoena ezarri eutsan ezpantxuetan izeko onak bere lobatxu maiteari.

Ta au, bere izekoaren mosu gozo aren indarrak bultz eginda legez, ariñeketa baten joan zan, Kataliñen besoetatik, bere laguntxuen aurrera.

Ta eurok lagun artuta, betiko euron olgeta-lekura, eliza aurreko landara, joan zan.

Bidean ioiala, lagunakaz berba egin-bearra ez eukan tartetxuetan, bere buruari esaten eutsan, poza siñistu eziñik:

— Emongo ete deust, ba, iñoiz izeko barriak izeko Kataliñek gaur berton emon deustan lango mosurik?

\* \* \*

Ordu beteko olgeta-aldi gozoa bere laguntxuakaz eginda, poz-pez bihurtu zan Aurrekotsera, bere etxera; berak nondik ezekiala, izeko barria ezaututeko bildurra poz bihurtuten ekiola.

Beti lez, abemarietakoak entzun ta lastertxuan sartu zan etxean; ta beti euki oi eban gogo onagaz apaldu ostean, iñoizko ondoen egin eban lo, zabal-zabal, Zeruko aingeruak berari begira poz-pez egoteko eran.

\* \* \*

Beste *amar lo eginda* ikusi eban izeko barria ezaututeko eguna.

Erbestera joan iakon aitatzu goizean goizetik, berari, lorik galerazo barik, loa baizen gozoa zan mosu andi-andi bat emonda; ta gaubean, Izeko Kataliñen eztegora etorririko lagun guztiak euron etxeetara joan baño lenago, agertu ekion izeko barriagaz... eta beste lagun bategaz.

Oi, bere poza andiagoa izateko, aitatzuk eta izeko barriak beste lagun bat ekarren eurakaz!

Bere antzeko mutilko polit-polit bat!

Irurak etozan an erbestean, izeko barriaren ta mutiltxu aren bizileku ordurartean izaniko etxean, izeko barriaren ta aitatzuren ezkontza osteko eztegora eginda.

Patxitxuk, jakiña zan!... a mutikotxua ikusi ebanaz batera, nor zan jakin gura izan eban ta... aitatzuri itandu egin eutsan:

— Aitatzu, nor da ori mutilkotxu ori?

Ta aitatzuk, mutilkotxu ekarri barriari mosu andi-andi bat emon ta gero, Patxiri, berari beste mosu bardin bat emonda, olantxe berba egin eutsan:

— Patxitxu, au... anaia eztok; baño anaitzako artu einke; ba beronen ama, eure izeko barri au, eure ama ona izan zoanaren etse onetako ardu-rea artuten iatok.

Eta orduan, izeko barriak, Patxitxuri berak be mosu andi-andi bat emon ta gero, mutilkotxu ekarri barriari beste mosu bardin bat emonda, esan eutsan oneri:

— Telestxu, euk be au berau... anaia eztok; baño anaitzako oinganik artu einke; ba beronen aitak, eure osaba barri onek, eure aita ona zoanaren etsetik beronen etse onetara ekarri naiok, zeurok biok kristiñau onak lez azteko, lauron bizileku gaurganik ioagun etse maitegarri onetan.

— Olan dala, berorreri, andrea, *izekoa* barik, *ama* deituko deustat, — urten eutsan Patxitxuk urduri-urduri.

— Ta nik zure aitari, Patxitxu, *osabea* barik *aita* deitu bearko, —diño orduan Telestxuk.

Telestxun ama ta Patxitxun aita, berbalditxu onek emoniko pozak biotzean ikututa, iya negar egin bearrean dagoz pozaren-pez.

Ta Telestxun amak berak, Patxitxun ama barriak, negar malkoai iges eragiteko berbaldia amaitutearren, zer egin eztakiala, Patxitxuri, beronek pozen-pozen entzun eikean itaunetxu au egiten deutso:

— Dotriña asko ikasten... dok... Patxitxu?

— Alegiña egiten dot, ama.

— Tirok ba! Biar asita, Jainkoak gura baiok, baukok laguna onegaz, Telestxugaz, astegunetan eskolarako, ta iai-egunetan, Mesa nausirako, Dotriñarako ta Errosariorako.

— Au poza!... Eztaukat orain beste tamalik geure izeko Katalin ta gaur ezautu dodan osaba barri au biar baiokuzala iakitea baño.

— Eztoaz atarañoko urrunera be ta, etorriko dira... zarriritxu.

— Bai, Patxitxu, albait zarrien etorriko gara.

Poza sinistu eziñik egoan Patxitxu onek gauzok entzunda.

Ta siñistu eziñeko poz andi orregaz joan zan, aita-aman ta izeko-osaban atzetik, bere anai barri Telestxu eskutik daula, bein ordura ezkerogertu egoan aparria jango eben maira.

\* \* \*



Izeko-osabak goizetik ibilli-bearra eukien biaramonean, euron erri barrian mezea entzuteko, ta orretarako aparti luzea egin barik albait ariñen atsedeten joatea ondo etorkielako, ez zan egote luzerik egin maian.

Baña alan ta be, ta alkarrerri zer-esan asko euki arren be, Patxitxu ta Telestxu, aparia amaitu baño lenago, logureak geiago eginda, lo gozozotan, alkarren ganera iausi zirean.

Ta alantxe lo gozo-gozotan dagozala,... oi batera eroan zituezan biok aitak eta amak: ordurartean Patxitxuna ta ordurik gora biona izango zan oira.

Ames gozo onik egingo eben aingerutxu biok alkarren ondotxuan.

\* \* \*

Biaromonean, Aurrekotsetik erriko meza nausira lau lagun joan zirean. Patxitxu ta Telestxu ta Patxitxun ta Telestxun aita-amak.

Mutilkotxu biok, euron aita-aman aurretik ikustekoak ioiazan: biak neurri bardiñekoak, biak alkarren antz andikoak eta biak alkarren ondotxutik, iya bata besteari deusala.

Ta baeukien mutilkotxuok zer-konteu alkarrerri bidean.

Elizara eldurik, Patxitxuk Telestxu,... ze esan be ez!,... mutilkotxuen-tzako aulkietariko baten aurrera eroan eban beragaz.

Ta antxe entzun eben meza nausia ta meza nausiko sermoia,... gizon askok oindiño ikasi barik daukien iaz ederragaz.

\* \* \*

Elizatik urten ebenean, an elizpean aurkitu ebezan, eurok baño lenago urtetea gertautu, euron begira egozan mutilkotxu lagunak.

Eurotariko batek, Martzel izeneko zarrentxuenak, beingorako itandu utsal Patxitxuri Telestxugaitik:

— Au nor dok, mutil?

— Nor izango ioat ba? Anaia! —erantzun utsal Patxitxuk.

— Bai, zereko anaia! Lengusua izango dok.

— Ez! *Anaia!*

— Eztok ba izeko barriaren semea?

— Ez! *Ama barriarena!* Eztok, Telestxu?

— Bai, Patxitxu, —diño Telestxuk.

— Olan dala, anaiak zarie.

— Bai orixe!, —erantzun utsalien biak batera.

— Ba gu... zeuron lagunak.

— Eta gu... zeuronak. Eztok, Telestxu?

— Bai, Patxitxu, eurok gura badabe.

— Eztogu gurako ba?, —diño Martzelen lagunak.

— Tira, ba, asi gaitazan!, —diño orduan Matzelek berak. Ia, Erramontxu! Ataraik pelotea. Txulian-txulianka egin bear ioguk... Buruan io barik, lepora iaurrettera gero!

— Bai, eta bear dan lez, —diño Patxitxuk, bere txartestxua elizpeko age-adar batetik eskegiten daula.

Eta landara urtenda, ekiñalean ekiten deusie txulian-txulianka, ama-bietako kanpai-iotea entzun artean.

Orduan, eurokandik urren dagozan zarren ondotxura ioan ta... eurokaz errezetan dabe *Anjelus* izeneko otoitza bere iru abernariakaz.

Ta au eginda,... bakotxa bere etxera.

Baña ez Martzelek itaune au Patxitxuri egin barik:

— Dotriñara be etorriko zarie... biok, ezta?

— Bai, anai biok.

\* \* \*

Martzeleri arratsalderartean agur eginda, Patxitxuri Telestxu abadeagana eroatea otu iakon.

Ain zuzen be, orduantxe urten eban abade jaunak elizatik.

Eta euron txapeltxuak polito-polito burutik kendu, ta badoaz beragana, ta badiñotso Patxitxuk:

— Jauna, apunteko dau au Dotriñan? Gaur asita, Dotriñara ibilli gura dau.

— Ederto! Zelan iaukok izena?

— Ba... Telestxu.

— Ta abizena? Apellidua?

— *Zumeza*, neuk lez. (Ta eztiño guzurrik, alantxe dauko, suertez, euki be ta).

— Lengusua dok?

— Lengusua baño geiao, jauna. *Anaia!* Neure ama barriaren semea da.

— Berau barriz neure aita barriarena, jauna. —urteten dau Telestxuk.

Eta biak batera diñotsie:

— Anaiak gara, Jauna!

Ainbeste anai, anai izan gura ezik bailegozan, txakur ta katu ikustea gertau ekion abade jaunak, mutilkotxu bion alkarren anai izan gurea iku-



siaz poztuta, igotzi gozo bana eurori burutxuetan eginda, poz pozik diñotsie:

— Tira, ba, olantxe urte askotan! Ta... etorri jai-domeka guztietan Dotriñara!... Bakik ik, Patxitxu, urteko jai-domeka guztietan iatozan mutilko-neskatoai txartes bana ta gona bana emoten ieutsiedana;... ta ganera, geien ikasten ioenai... Baña, entzuik: zer ein deusak euk... igaz irabazi endun txartes politari?

— Ene! —esan eban Patxitxuk esku biak bular bietara eroanda, soñean eztaukala ikusirik— elizpeko age-adar batetik eskegita itxi dot, jauna, bera loitu barik txulian-txulianka egiteko. Ta berori ikusi dodanean, berorrek Telestxu Dotriñan apuntetako, berorregana biok etortea baño besterik ez iat otu ta...

— Iantzi arin, ba, otzitu barik!

— Bai, jauna. Geratu beite ondo.

— Etorri gero Dotriñara ta Errosariora, bietara!

— Bietara, bai, jauna,... anai biok.

— Olantxe beti alkar anaitzat eukiko al dozue!, —esan eban bere barruan, eskuak alkarrerri emonda elizpera ioiazan mutilkotxu bioi begira.

Ta ikusirik Patxitxu, Telestxun eskua itxiaz batera elizpeko orma ganera igon ta beingoan, age-adarretik arturiko txartesagaz, saltu bizkor baten jatsiten, iya eurok entzuteko eran esan eban:

— Ta ez al zarie iñoiz be jausiko, aingerutxuok, pekatu astunean!

\* \* \*

Etxera eldu zireanean, beingoan esan bear izan eutsan Patxitxuk... eurok noiz etorriko... atartean begira eukien ama maiteari:

— Ama, esan deusat abade jaunari Telestxu Dotriñan apuntetako.

— Ta... apelidua iakin dozu ba?

— Ene! Iakinda dao. *Zumeza! Anaiak* izan ezker ba...

— Bai, alantxe... Zoaze orain... biok,... semetxuak, or goiko soloan egongo da ta, aitagana,... esaten bazkaria gertu dagoala.

— Ta gero,... bazkal-ostean... Dotriñara!... Ezta, amatxu?

Ta au esanda, saltuka joan zirean mutilkotxu biak aitagana, amak agindu eutsiena esaten, amari begietatik urteten asi ekiozan negar-malko gozoak ikusi barik.